



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 9a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, etxeko laguntza psikiatrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, COVID-19aren pasaporte egiaztatze aplikazio bati buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaile bitarte handitu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboen jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako batzorde delegatuaren bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilereari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Enderlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 38/2022 Ebazpena, otsailaren 22koa, Kontuen Ganberako lehendakariak emana, erakundearen egoitza elektronikoa eta erregistro elektronikoa arautzen dituena (28. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 17ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00389), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“1.- Zenbat pertsona daude Nafarroan honako diagnostiko hauekin?”

- a. Diabetesa
- b. Kardiopatia iskemikoa
- c. Bihotz-gutxiegitasuna
- d. Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa
- e. Asma
- f. Garuneko eta odol-hodietako gaixotasuna
- g. Zirrosi hepaticoa

- h. Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa
- i. Dementzia
- j. Neuroendekapenezko gaixotasunak
- k. Gaixotasun arraroak
- l. Obesitate morbida
- m. Tratamendu aktiboko minbizia

2.- Lehendabiziko puntuko talde horietako bakoitzean, zenbat dira, guztira, COVID-19aren kasu egiaztatuak, COVID-19a dela-eta ZIU ospitaleratutakoak eta COVID-19ak hildakoak pandemia hasi zenetik?”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Bildutako informazio estatistikoan nabarmentzekoa da litekeela dela paziente bat talde batean baino gehiagotan sailkatuta egotea patologia bat baino gehiago izateagatik, eta hori gainerako atletako kopuruetan ere islatuko litzateke. Bestalde, gaur egun eskuragarri dagoen informazioarekin ezinezkoa da heriotzen kopuruak ematea, zaila delako bereiztea, xehetasun mailarengatik, COVIDarekin eta COVIDarengatik kategorien artean, alegia, noiz izan den birus hori heriotzaren zuzenean eragilea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Diagnósticos	Pacientes diagnosticados	Casos confirmados	Ingresos hospitalarios	Ingresos en UCI
Diabetes Mellitus	43547	5607	1480	164
Cardiopatía isquémica	28097	3636	856	97
Insuficiencia Cardíaca	8487	1107	464	20
EPOC	11845	1296	435	51
Asma	44534	9037	487	63
Enfermedad Cerebrovascular	12190	1577	492	36
Cirrosis hepática	1359	158	47	5
Insuficiencia Renal Crónica	17542	2086	779	49
Demencia	7727	1339	396	4
Enfermedades Neurodegenerativas	1246	194	34	3
Enfermedades Raras	678	112	18	0
Obesidad mórbida	3194	558	132	20
Cáncer en tratamiento activo	12114	2521	1284	363

Galdera, etxeko laguntza psikiatrikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin etxeko laguntza psikiatrikoari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko abenduaren 17ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00390), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatreek etxeko laguntzarik eman al diete gaixoei Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatu zenetik gaur arte?

2.- Hala baldin bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatreek zenbat gaixo baloratu dituzte etxean, Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatu zenetik gaur arte?

3.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak aurreikusitako neurria al da oraindik ere etxeko laguntza psikiatrikoa?

4.- Osasun Departamentuak zer baliabide josten ditu beharrezkotzat etxeko laguntza psikiatrikoa bermatu ahal izateko?

5.- Nola eta noiz ezarriko du laguntza hori, kontuan hartuta Osasun Departamentuak egun bete gabe dituen psikiatriako baliabideak?

6.- Osasuneko kontseilariaren ustez, akatsa izan al zen eman ezin duen etxeko laguntza psikiatrikoa emateko konpromisoa hartzea?”

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Cristina Ibarrola Guillén andreak egin dituen galderei erantzun aurretik zenbait kontu argitu behar dira:

– Ibarrola andreak aipagai duen helburu operatiboa honako hau da: «Laguntza integrala sustatzea, nahasmendu mental larria diagnostikatua duten pertsonen zainketa jarraitutasuna bermatzen diena sare soziosanitario osoan».

– Helburu horretan zenbait ekintza-ildo definitzen dira, tartean «Etxeko esku-hartzeak sustatzea» izenekoak. Ez da inon azaltzen «psikiatreek etxean laguntza ematerik», ezta «etxeko ospitalizaziorik» ere.

– Nafarroako Osasun Mentaleko hurrenez hurrenko plan estrategikoetan eta Osasun Mentaleko Kudeatzailetza honen helburu operatiboetan ongi zehazturik dagoenez, Osasun Mentaleko sare anbulatorioan egiten diren esku-hartzeak eredu komunitarioan dute oinarria. Eredu horri talde-lanak eta arlo anitzeko esku-hartzeak eusten diote, beste ekintza batzuen artean.

– Azkenik, etxeko esku-hartzearen eta etxeko ospitalizazioaren arteko desberdintasuna azalduko dugu. Etxeko ospitalizazioa da ospitalertzearen ordezkari aukera bat non kalitatezko zainketa, tratamendu eta laguntzak jasotzen baitira, ospitalean jasotzen direnen gisakoak. Etxeko esku-hartzea da egoera berezietarako ekintza bat non Osasun Mentaleko laguntza-baliabideko profesional bat gaixoaren etxera joaten baita balorazioa edo esku-hartzea egitera. Osasun Mentaleko Sarean ez da etxeko ospitalizaziorik egiten, etxeko esku-hartzeak baizik.

Galderen erantzunak:

1. 2021eko maiatzetik 2021eko abenduaren 20ra arte 23 gaixori eman zaie laguntza etxean, arlo anitzeko esku-hartzeetan.

2. Psikiatreek 11 esku-hartze egin dituzte.

3. Etxeko esku-hartzeek salbuespenezko egoeretan edo krisialdietan garatu beharreko neurriak izaten jarraitzen dute.

4. Berrantolatu egin dira psikiatren, psikologo klinikoen eta erizainen agendak, krisi egoerei edo larrialdiei erantzuna emateko tarteak eduki dituzaten agenda horietan. Tarte horiek erabiliko dira etxeko esku-hartzeren bat egin beharra dagoenean.

5. Prozedura garatuta dago, eta helburukako itunean jasota.

6. Etxeko esku-hartzeak egin izan dira, egiten ari dira, eta nahi dugu egiten jarraitzea; agendak antolatu dira esku-hartze horiek errazago egin ahal izateko moduan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 17ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00391 galdera egin du. Hori dela-eta, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

1.- 2021eko ekitaldia itxita, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren “320000 32100 7800 261400, Dirulaguntzak eta sorospinak etxebizitzetako jarduketetarako” izeneko aurrekontu partidaren kargura 26.296.710,21 euroko betebeharrak aitortu dira birgaitze jarduketetarako dirulaguntzak direla-eta.

2.- 26.296.710,21 euro horietatik, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko birgaitze obretara bideratu duen aurrekontu zatia 9.545.029,41 eurokoa da.

Hori bat dator Nafarroan etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 45.1.d) artikulua-rekin; izan ere, Nafarroan babesgarria da birgaitze arloko jarduketa hau:

“d) Irisgarritasun unibertuala eta ororentzako diseinua.

Ororentzako irisgarritasuna eta diseinua egokitzeko lantzat hartuko dira oztopoak kentzeko eta desgaitasuna dutenentzako sarbidea eta erabilera errazteko egiten direnak”.

Hauek dira dirulaguntza lerro nagusiak:

1. Eraikinetan igogailua paratzea, baldin eta ez bazuten, eta irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora egokitzea, eraikinaren sarreratik etxebizitza guztien sarreraraino.

2. Dagoeneko igogailua zuten eraikinetan, irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora egokitzea, eraikinaren sarreratik etxebizitza guztien sarreraraino.

3. Igogailurik ez zuten eraikinetan igogailua paratzea eta irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora partzialki egokitzea, erabat egokitzeko ezintasuna edo zailtasun larria justifikatuta.

4. Dagoeneko igogailua zuten eraikinetan, irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkora partzialki egokitzea, erabat egokitzeko ezintasuna edo zailtasun larria justifikatuta.

Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudi berariazkoarekiko egokitzapena erabatekoa dela joko da DA DB-SUA/2 dokumentuko 2. taulan ezarritako balioak lortzen direnean (Eraikingintzaren Kode Teknikoa, Erabileraren Segurtasunari eta Irisgarritasunari buruzko oinarriko dokumentua, 2. Irisgarritasun baldintzen egokitze eraginkorra lehendik dauden eraikinetan).

Hala behar denean, Eraikingintzaren Kode Teknikoko DB-SUA dokumentua bete ordez bestelako konponbideak aplikatzen ahal dira, onargarriak badira. Hartara, irisgarritasun unibertsalerako eta ororentzako diseinurako neurriak ezartzeko jarduketa jakin bat teknikoki edo ekonomikoki bideraezintzat joko da kasu hauetan:

1. Igogailurik ez zegoen tokian igogailu bat jarztean eta eskailera-mailak kentzean, ezinezkoa bada obrak elementu komunuen espazio fisikoan edo kanpoko espazioan gauzatzea eta obrak gauzatzeko, aplikatu beharreko araudiarekin bat, hartu beharko litzatekeen lokal edo etxebizitza zatiaren jabearen ezezkoa jasota badago dokumentu fede-emaielaren bitartez; hori Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiztaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 55. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

2. Obra batzuen gauzatzea DB SUAren zehaztapenetara erabat egokitzen denean ere, gauzatze horrek ezinbestean ekartzen badu bizigarritasun baldintzak edo derrigorrez bete beharreko beste arau batzuek ezarritako baldintzak betetzeari uztea.

3. DB SUAren zehaztapenetara erabat egokitzen diren arren, obrak gauzatzeak aurrekontua bestelako konponbide alternatibo batzuen baina % 20 handiagoa izatea eskatzen badu. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak erabakiko du alternatiba horiek onargarriak ote diren aintzat hartuz irisgarritasun baldintzak zentzuzko hobetzen dituzten, eta horretarako, irizpide hauek aplikatuko ditu:

a) Betebeharrak murriztea DB SUAn sartutako parametro guztiak betetzea teknikoki edo ekonomikoki bideraezina den kasuetan baizik ez da onartuko.

b) Aurrerago adierazten diren murrizketak muga izanen dira, eta ezin izanen dira aplikatu araudian xedatutakora gehiago lotzeko aukerarik bada.

b.1) Eskailera. Eskailera baten zabalera 90 cm-ra murrizten ahalko da gehienez, baldin eta aurretik zegoena igogailua instalatzeko txikiagotzen bada edo, xede berarekin aurretik zegoen eskailera kendu eta beste bat eraikitzen bada, honela: eskailera berriaren oin azaleraren % 60 baino gehiago aurretik zegoen eskaileraren kuxan eraikita.

b.2) Arrapalak:

b.2.1) Zabalera: arrapalen zabalera 100 cm-ra murrizten ahalko da gehienez, betiere tarteko eskailburuetan, bai eta tarte bakoitzaren hasieran eta bukaeran dauden azalera horizontaletan ere, 120 cm-ko diametroko zirkulua egiteko tokia bada.

b.2.2) Maldak: maldak % 12koak izanen dira gehienez 3 metrora arteko luzera duten tarteetan; % 10ekoak izanen dira 3 eta 8 metro arteko tarteetan, eta % 8koak 15 metrora arteko tarteetan.

b.2.3) Eskailera-buruak: 120 cm-ko diametroa duen zirkulua egiteko modukoak izanen dira.

b.3) Korridoreak. Korridoreak 100 cm zabal izanen dira gutxienez, 80 cm-ra arte estutzeko aukerarekin, betiere tarte horien luzera 50 cm-tik gorakoa ez bada. Norabide-aldaketetan bira emateko espazioak edo 10 metrotik gorako korridoreak 120 cm-ko diametroko zirkulua egiteko modukoak izanen dira.

b.4) Igogailuak:

b.4.1) Igogailu-kabina: hona, igogailu-kabinaren barneko gutxieneko neurriak: 90 cm-ko zabalera bider 120 cm-ko sakonera (120 x 120 cm, angeluko aterik bada), aintzat hartuta oztopoak kentzen direla. Gehienez ere 70 cm-ko zabalera bider 90 cm-ko sakonera badago, ulertuko da oztoporik ez dela kendu baina irisgarritasuna hobetu dela; neurri horien azpitik ulertuko da ez direla hobetu irisgarritasun baldintzak.

b.4.2) Ateak: igogailuaren ateen zabalera libreza ez da izanen 75 cm-tik beherakoa, alde batera utzita aurreko paragrafoan aurreikusitako salbuespena.

b.4.3) Sarbideak: igogailuaren atearen parean, 120 cm-ko diametroko zirkulua egiten ahalko da.

3.- 9.545.029,41 euro horiekin dirulaguntza eman da 2.737 etxebizitza birgaitzeko, 197 espedientetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, COVID-19aren pasaportearen egiaztatzearen aplikazio bati buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin COVID-19aren pasaportearen egiaztatzearen aplikazio bati buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko abenduaren 17ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, COVIDaren pasaportearen egiaztatzearen aplikazio bati buruz (10-21/PES-00392). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak aplikazio bat garatzen du Nafarroako Gobernuak beste departamenturen

batetik hasierako eskaera jasoz gero, eta bien arteko elkarrizketa irekian, aplikazioaren ahalbideak eta garapena aztertzeko.

Kasu zehatz honetan, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak, eskaera formala abian jar zitekeela eta, aztertu egin zituen aurretik eskura zeuden aplikazioen eskaintza teknikoak, konparazioa egin zuen eta informazioa Osasun Departamentuari helarazi zion, hark baitu eskumena gaiari buruz erabakitzeko.

Gogoeta egin ondoren, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen inongo aplikaziorik ez erabiltzea aipatu helbururako, berariazko tresna baten beharrik ez zegoela iritzita, egiaztatu ondoren bazirela zenbait baliabide horretarako eskuragarri eta haietako asko jada erabiltzen ari zirela sektorean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Galdera, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 27ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00393), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“1.- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioak etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatut zituen 2017an eta 2018an. Kontratazio horiek justifikatuta zeudela uste al du Osasun Departamentuak?

2.- Osasun Departamentuak kontratazio horietako eskakizun berberak exijitu al ditu legegintzaldi honetan etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean jarduera asistentziala egin duten barne-medikuntzako sendagileen kasuan?

3.- Hala izan ez bada, eta kontuan hartuta departamentuak gero ez diela halakorik exijitu Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren etxeko ospitalizazioko edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitateko jarduera asistentziala egiten duten barne-medikuntzako sendagileei, nola justifikatzen ditu 2017an eta 2018an egindako kontratazioetarako exijitu zituen eskakizunak? Izan ere, eskakizun horiek kalte egiten zieten eskakizunak bete ez arren kontratazio-zerrenden

bidez –hala zegokielako– kontratazio horietan sartzan ahal ziren barne-medikuntzako sendagileei.

4.- García Orcoyen eta Reina Sofía ospitaleetako etxeko ospitalizazioko edota gaixo kronikoen unitateetan jarduera asistentziala egin behar izan duten barne-medikuntzako sendagileen profileko kontrataziorik egin al da 2017az gero? Zenbat egin dira profilarekin eta zenbat profilik gabe? noiz egin dira?

5.- Hiru ospitaleetan profilari buruzko irizpide berberak erabili ez badira kontratazioetan, Osasun Departamentuak nola justifikatzen du ekitate falta hori?”

Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Nafarroako Ospitaleguneak 2017an eta 2018an profilarekin eskatutako hiru kontratazio baino ez daude jasorik, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitate-rako.

O-NOZeko Zerbitzu Zentralek eskaera horietako bi onartu zituzten eta besteari ezezkoa eman zitoten.

Legegintzaldi honetan ez da mota horretako lanpostu profildunik eskatu ospitalean.

Ez dugu uste Nafarroako Ospitale Unibertsitarioak 2017an eta 2018an egindako eskaerak justifikatu behar dituenik. Nafarroako Ospitaleguneak eskaera horien arrazoiak azaldu zituen, Zerbitzu Zentralek eskaerak baloratu zituzten eta haietako bi justifikatutzat jo zituzten, bestea ez.

Lehenengo puntuko proposamenak eta txostenak eskuragarri daude –datu partikularrei dagokien kautelaren pean, noski–, baina Parlamentura ekarri ahal izateko bide egokia informazio-eskaera bat litzateke, dokumentuak baitira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izanari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 27ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00394), jakin nahi baitu “zeri zor zaion, zehazki, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izana”. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan kirurgiako zerbitzu guztiak egiturazko zerrendako gaixoen jarraipena egiten ari dira, eta ahalegintzen dira gaixo horiek bermeen legeak ezarritako epean programatzen.

Arrazoi klinikoak edo gaixoaren gorabeherak tarteko ezinezkoa denean proposatutako egune-

rako programatzea, gaixoa beste zerrenda batera pasatzen da, aldi baterako programatu ezin diren zerrendara (ABPE), egokitzen jotzen den aldirako.

Profesional batzuek, gaixo bat ABPEra pasatu behar dela adieraztean, ez dute jasotzen zergatik pasatu behar den. Hori traumatologiako espezialitatean gertatzen da, bereziki.

Egiturazko zerrendatik ABPEra igarotzean, gaixoari arrazoi hauetako bat erregistratzen zaio:

- H: hondamendi naturala
- M: arrazoi medikoa
- P: arrazoi pertsonalak
- X: erregistratu gabeko arrazoiak.

ABPEen eboluzioa aztertu da erregistratutako arrazoiaren arabera, eta ikusi da kategoria horietako bitan gertatzen direla zerrenda horren ohiko egoeraren aldaketak: arrazoi pertsonalak eta erregistratu gabeko arrazoiak. Erregistratu gabeko arrazoiengatik zerrenda horretara pasatu diren kopurua traumatologian handitu da gehien, eta neurri txikiagoan kirurgia orokorrean eta oftalmologian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 27ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00395), jakin nahi baitu "Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak nola azaltzen duen kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izana". Hona horri buruz Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

Kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua bi arrazoirengatik jaitsi zen 2020ko martxoan.

1. Jada hitzordua zuten gaixo gehienak telefonoz artatu zituzten: pandemiarengatik alarma ego-

era deklaratu zenean, martxoko agenda guztiek eta apirileko agenda batzuek jada bazuten hitzordua lehen kontsultetarako eta berrikuspenetarako. Medikuek telefonoz deitu zieten beren agendetan hitzordua zuten gaixoei eta kasu bakoitzean baloratu zuten ea arazoak berehalako arreta presentziala behar zuen (aurrez aurreko hitzorduari eusten zitzaion), telefonoz behin betiko konpondu ahal zen (alta ematen zitzaion), geroratu behar zen, edo unean uneko jarraibideak eman eta geroko berrikuspen batera deitu behar zen. Gaixo horietako gehienak, beraz, itxarote-zerrendatik atera ziren, nahiz eta asko berriz sartu erregistroan geroxeago.

2. Eskariaren beherakada martxoan eta apirilean. Pandemiarengatik alarma egoera deklaratu zen unetik izugarri jaitsi zen kanpoko kontsultetarako deribazioa hala oinarrizko osasun laguntzatik nola larrialdietatik eta beste espezialitate batzuetatik.

Balitzko eragin bikoitz horren ondorioz, kanpoko kontsultetako itxarote-zerrenda izugarri jaitsi zen martxoan eta apirilean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa. Galdera 2021eko abenduaren 27ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00396), jakin nahi baitu “Nafarroako Gobernuak zer babes daukan B eranskinetan inplikaturako profesionalen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko”. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

- Galderaren ezaugarriengatik, ulertzen dugu B eranskin horiek direla O-NOZen Laneko Arriskuen Prebentziorako Planeko P14 prozeduraren testuinguruan emandakoak (“Lan ingurunean gatazka eta jazarpen egoeren edo bestelako barne-indarkeriaren prebentziorako, konponketarako eta ebazpenerako prozedura”).

- Prozedura horrek O-NOZera egokitzen du 10.18R prozedura (“Lan ingurunean gatazka eta jazarpen egoeren edo bestelako barne-indarkeriaren prebentziorako, konponketarako eta ebazpenerako prozedura”), zeina Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren apirilaren 8ko 969/2019 Ebazpenaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Gobernu osoarentzat eta haren erakunde autonomoentzat.

- Adierazi behar da prozedura horretan jarduketan hasiera gisa onartzen dela edozein komunikazio bide, eta horietako bat litzateke Auzolan intranetean (O-NOZen intranet korporatiboan) dagoen B eranskina.

- P14 prozeduran adierazten den bezala, B eranskinak 10.18R prozeduran jasotako irizpideak betetzen ditu, gutxieneko edukari eta intimitaterako

ko eta datu pertsonalen babeserako eskubidearen bermeei dagokienez.

- Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko mekanismoak direla-eta, esan behar da P14 prozedurak berak hau ezartzen duela 5. atalean, prozeduraren bermeei buruzkoa:

- Isilpekotasuna zor zaie prozedura honetan aurreikusitako faseetako edozeinetan parte hartzen duten pertsona guztiei, jasotako informazioari eta dokumentazioari dagokienez.

- Prozedura honetako faseetako edozeinetan parte hartzen duten pertsonen intimitaterako eskubidea babesteko da.

- Sortutako informazio pertsonalaren tratamendua Datuak Babesteari buruzko Europako Erregelamenduan eta Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoaren bidez arautuko da.

- Gorago aipaturako printzipioak betetzearren, hauek bakarrik jasotzen dute B eranskina: Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (LAPZ), eta Profesionalen Zuzendaritzak arlo bakoitzean izendatutako pertsona batek. Pertsona horrek egiten du egoeraren hasierako balorazioa LAPZren teknikarietako batekin, prozedurak ezartzen duen bezala. Prebentzio Zerbitzuak ez dio inori ematen dokumentu hori, salbu eta hura bete duen pertsonari, eskatzen badu, eta, epailearen errekerimendua dagoenean, errekerimenduak adierazten dituen pertsonari.

- Formulario horren bidez bildutako datuak Sehtra aplikazio informatikoan sartzen dira. LAPZk datu-base gisa erabiltzen du istripuak kudeatzeko eta arriskuak ebaluatzeko, eta horrela datu estatistikoak lortzen ditu, gatazka eta barne-indarkeriazko egoeretan prebentzio-ekintza nola hobetu aztertze aldera.

Aplikazio horrek datuen babesaren arloan indarra duen araudia betetzen du.

- Esan behar da B eranskinaren funtzio bakarra dela lanarekin lotutako gorabehera bat jakinaraztea, lan baldintzak azter daitezzen eta prebentzio neurri egokiak har daitezzen. Beraz, ez da salatze bide bat.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoari eta 2021erako plangintzari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren plangintzarako sistema onesten duen gobernu-erabakiari buruz eta 2021erako plangintzari buruz (10-21/PES-00397). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1.- Zer dela-eta erabaki zuen Nafarroako Gobernuak, azaroan, gobernu-erabaki bat hartzea, garapen-sistema bat onesten zuena Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren plangintzarako, bai eta 2021erako plangintza ere? Ba al dago txostenik, ohararazten duenik Departamentua legez kanpoko moduan ari zela zenbait azpiegitura finantzatzen?

Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez onetsi ziren Nafarroako Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren plangintza garatzeko sistema eta 2021eko ekitaldirako plangintza. Erabaki hori hartu zen, txosten batzuetan ondorioztatu zelako ez zela bidezkoa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikularen 2.a) apartatuan aurreikusten diren dirulaguntza izendunetako batzuk ematea.

Hasiera batean, Kontu-hartzailetza Delegatuak eragozpenak jarri zituen, zenbait arrazoiengatik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikularen 2.a) apartatuan aurreikusten diren dirulaguntza izendunetako batzuk eman ahal izateko, eta departamentu hau ez zegoen ados arrazoi horiekin.

Espedientea Kontu-hartzailetza Nagusiari igorri zitzaion eta hark esan zuen, departamentu honekin bat etorritik, ezin zela dirulaguntza emateko baldintza gisa eskatu Parlamentuak berdintasun printzipioa urratu ez izanaren frogara; baina Kontu-hartzailetza Delegatuarekin ados zegoen esatean ezin zirela dirulaguntza horiek eman Kontu-hartzailetza Delegatuak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 49. artikuluan egin zuten interpretazioaren ondorioz.

Funtsean hauxe zen Eskubide Sozialetako Departamentuaren jarrera: 15/2006 Foru Legearen 49. artikuluan saihestu nahi zuen Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezartzen ahal ziren inbertsioak baino lehentasun txikiagokoak finantzatzea, baina, plan horretan azpiegituren plangintzarik ez zegoenez, ez zen interpretatu behar –eta ez da inoiz interpretatu 2006 eta 2021 bitartean– ezin zela inongo inbertsiorik egin planak azpiegiturei buruz ezer zehatzik ez aurreikusteagatik.

Gainera, planak, administrazio-egintza izanik, ez litzuke baldintzatu eta lotu behar Parlamentuak onesten dituen arauak; ulertu behar da, aitzitik, administrazio-egintzak eta -xedapenak direla lege-arauei lotuta daudenak.

Desadostasun horrek ez zezan galarazi Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean jasotako inbertsioak gauzatzea, Kontu-hartzailetza Nagusiari proposatu zitzaion, desadostasuna Nafarroako Gobernuari igorri ordez, gobernu-erabaki batean garatzea departamentuaren ildo estrategikoen eta balizko inbertsioen arteko lotura, eta aztertzea nola egokitu zitezkeen aurreikusitako inbertsioak ildo estrategiko horiekin (plan sektorial bati eragiten dioten inbertsioen kasuan, bai Nafarroako Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoko ildoekin bai plan sektorialetako ildoekin).

2.- Erabaki horren 3. puntuak ezartzen du ezen, finantzatu beharreko inbertsioetarako, aintzat hartuko direla Dirulaguntzei buruzko Foru Legeko 17.2.a) artikuluan jasotako aurreikuspenak egoteagatik egiteko modukoak diren inbertsioak. Alegia: izendun partida bat egoteak esan nahi du zer azpiegitura finantzatuko diren erabakitzeko Parlamentuaren esku dagoela, eta ez Plan Estrategikoak xedatzen duenaren esku?

Galdetu da ea Nafarroako Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 Plan Estrategikoarekin lotutako azpiegituren plangintzarako sistema eta 2021eko ekitaldirako plangintza onesten duen gobernu-erabakiaren 3. puntuak (ulertzen dugu 1. puntuko 3. erregelaz ari dela) esan nahi duen Parlamentuaren esku dagoela zer azpiegitura finantzatzeko diren erabakitzea, eta ez Plan Estrategikoak xedatzen duenaren esku. Horri dagokionez, gerta daitezkeen egoeren artean bereizi behar da:

1. puntuko 3. erregelan ez da bakarrik aurreikusten Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikulua (2.a) apartatua jasotako aurreikuspenak badaudelako egin ahal diren inbertsioen kasua, baizik eta Europar Batasunaren, Estatuko Administrazio Orokorren edo beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuen kargura finantzatzeko diren inbertsioen kasua ere bai; eta kasu horietan guztietan honako hau babestu nahi da, goragoko maila juridikoaz eta legezketasun printzipioaren aplikazioaz gain, Nafarroako Parlamentuak onesten dituen arauak dagokienez: Parlamentuak edo beste erakunde batzuek (Europar Batasunak, Estatuko Administrazio Orokorrek edo beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk) gizarte zerbitzuetarako azpiegiturak egin edo hobetzera bideratzen dituzten funtsak azpiegitura horiek egin edo hobetzeko erabili ahal izatea.

Gainera, ez dago erakunde horien esku erabakitzea noiz onetsiko den azpiegituren plangintza bat, onestekotan. Beraz, aurreikusi behar izaten da egindako plangintza gerora handitu egin daitekeela beste inbertsio batzuei ekinez, horretarako funts gehiago lortuz gero.

Bestalde, ez 2021ean, ez Europar Batasunetik ministerioen bidez edo ministerioetatik zuzenean jasotzen diren funtsen kasuan, ez da talkarik izanen plan estrategikoko ildo estrategikoen eta Europar Batasunak edo ministerioek ezarritako arauen artean, helburu eta estrategia berak ditugulako; horregatik jaso dira Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioarekiko hitzarmenean Europar Batasuneko funtsekin egin beharreko inbertsio batzuk, bat datozenak planeko ildo estrategikoekin eta gizarte zerbitzuen funtzionamenduari buruzko araudiarekin, zeina plan hori aplikatuz eman baita.

Adierazi behar da, halaber, 2008-2012 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bai, jaso zirela Nafarroako Gobernuaren eskumeneko azpiegitura zehatzak zenbait esparrutan, lehentasunezko arreta-ildo baten barnean. Nafarroako Gobernuak bere plangintzaren arabera exekutatu beharreko azpiegiturak izendatu izanak

ez zuen galarazi beste batzuk finantzatzea epe horretan, eta Parlamentuak funtsen esleipen izendunak egin zizkien.

3.- Erabaki horretan onesten da 2021erako 8 azpiegituren plangintza. a) Azpiegitura horietako bakoitza Planeko zer ildo estrategikorekin lerrotzen da?; b) Horietako bakoitzari dagokionez, zergatik aukeratu dira horiek eta ez antzeko beste batzuk?

Hona zer ildo estrategikorekin lerrotzen den 2021erako aurreikusitako azpiegituretako bakoitza: departamentuak berak erabaki edo proposatutako kasuan, guztietan garatzen dira balio handiko prestazioak, eta instalazioak bat datoz onetsi berri den araudiarekin.

Parlamentuak onetsitako kasuan, ez dakigu zer arrazoi edo estrategia hartu zituen kontuan Parlamentuak, baina egiaztatu da horiek guztiak egokitzen zirela aipatutako bi ildo estrategikoetan.

Eta, horiexek eta ez antzeko beste batzuk aukeratu izanaren arrazoiari dagokionez, esan behar da, alde batetik, batean ere ez dela azpiegitura berririk eginen:

– Valle del Roncal CAIDIS zentroa zaharberritu eta bizikidetzat unitateak sortzea.

– Igogailua jartzea Irunberriko Zaharren Egoitzan.

– Barañaingo Adingabeen Etxe Funtzionala zaharberritzea.

– Baztango zaharren egoitza birgaitzea.

– Cintruenigoko zaharren egoitza egokitzea.

– Cortesko eguneko zentroa garatzea.

– Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitza egokitzea Erriberriko eraikin berri batean.

– Fontellasko Gizarte Zerbitzuetarako tokiak egokitzea.

Bigarrenik, esan den bezala, planak ez du ezartzen lehentasunezkoa denik azpiegitura jakin batzuk egitea edo eraberritzea. Hala ere, beste inbertsio batzuk ere balio handiko prestazioak sortzeko modukoak eta araudi berriaren arabera izan zitezkeen arren, horri ez zaio nahikoa irizten beharrezkotzat edo komenigarritzat jo diren inbertsioak ez egiteko.

4.- Halaber, horietako bakoitzari buruz eskatzen da hasierako aurrekontua eta aurrekontu exekutatuak.

Hona hemen taula batean zortzi azpiegituren hasierako aurrekontua eta aurrekontu exekutatuak:

Azpiegitura	Hasierako aurrekontua	Aurrekontu exekutatua
Valle del Roncal CAIDIS zentroa zaharberritu eta bizikidetzak unitateak sortzea	1.959.976,54	799.094,23*
Igogailua jartzea Irunberriko zaharren egoitzan	53.287,94	53.287,91
Baraæaingo Adingabeen Etxe Funtzionala zaharberritzea	45.972,99	44.273,51
Baztango zaharren egoitza birgaitzea	197.000	197.000
Cintruenigoko zaharren egoitza egokitzea	60.000	59.028,24
Cortesko eguneko zentroa garatzea	50.000	ez dute eskatu
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitza egokitzea Erriberriko eraikin berri batean	75.000	75.000
Fontellasko Gizarte Zerbitzuetarako tokiak egokitzea	60.000	60.000

* 2021ean exekutaturako zenbatekoa, urte anitzeko obra baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren 2021erako plangintzari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren 2021eko abenduaren 15eko erabakiari buruz, zeinaren bidez 2021eko ekitaldirako zabalagotzen baita 2019-2023 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin zerikusia duten azpiegituren plangintza (10-21/PES-00398). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Erabaki horretan aurreikusitako bi azpiegiturarako bakoitzerako:

a) Planeko zer ildo estrategikorekin lerrokatzen da?

Parlamentuak modu izendunean aurreikusitako azpiegiturarako bakoitza zer ildorekin lerrokatzen den esateko, ez dakigu zer arrazoi edo estrategia hartu zituen kontuan Parlamentuak, eta uste dugu Administrazioak ezin dituela bete gabe utzi Parlamentuak ematen dituen lege mailako arauak; baina egiaztatu da horiek guztiak egokitzen direla bi ildo estrategikotan, balio handiko prestazioak garatzen direlako eta instalazioak bat datozelako onetsi berri den araudiarekin.

b) Zergatik aukeratu da hori, eta ez antzeko beste batzuk?

Esan behar da, batetik, bakar bat ere ez dela azpiegitura berria:

– Airea girotzeko instalazioa Buñuelgo zaharren egoitzarako.

– Lodosako zaharren egoitzaren udal eraikina hobetzeko jarduketak.

Bigarrenik, planak ez du ezartzen lehentasunez egin edo eraldatu beharreko azpiegitura zehatzik, eta, beraz, bi instalazio horiek hobetzeak ezin zuen eragotzi planean ezarritako estrategia betetzea, ezta berari kontra egin ere; alderantziz, planaren betetze maila handitu eginen zuen.

Gainera, beste inbertsio batzuk ere balio handiko prestazioak sortzeko modukoak eta araudi berriaren araberrak izan zitezkeen arren, horri ez zaio nahikoa irizten beharrezkotzat edo komenigarritzat jo diren inbertsioak ez egiteko.

Adierazi behar da, halaber, 2008-2012 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bai, jaso zirela Nafarroako Gobernuaren eskumeneko azpiegitura zehatzak zenbait esparrutan, lehentasunezko arreta-ildo baten barnean. Nafarroako Gobernuak bere plangintzaren arabera exekutatu beharreko azpiegiturak izendatu izanak ez zuen galarazi beste batzuk finantzatzea epe horretan, eta Parlamentuak funtsen esleipen izendunak egin zizkien.

2. Halaber, horietako bakoitzerako, eskatzen dira hasierako aurrekontua eta aurrekontu exekutatu, bai eta ordaintzeko erabili den aurrekontu-partida ere.

Airea girotzeko instalazioa Buñuelgo zaharren egoitzarako:

Inbertsioaren xedea izan da airea girotzeko ekipamenduak instalatzea VRV bero-ponpadun sistemarekin lehenengo solairuan. Hasierako aurrekontua 116.652,34 euro izan zen. Aurrekontu exekutatu 90.039,13 euro izan da, eta zenbateko diruz lagungarria, 89.254,77 euro. Kontu-hartzailetza Delegatuak geldiarazi egin du dirulaguntzaren ordainketa.

Inbertsioa ordaintzeko, 2021eko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren barnean bazegoen 210001 21300 7609 231402 partida "(E) Airea girotzeko instalazioa Buñuelgo zaharren egoitzarako". Guztira 40.000 euroko gehieneko zenbatekoa zuen, eta onuraduna Buñuelgo Udala zen.

Lodosako zaharren egoitzaren udal eraikina hobetzeko jarduketak:

Inbertsioaren xedea izan da egoitzaren eraikineko alde batzuk zaharberitzea eta guztientzako komunak egokitzea, baita bigarren solairuko logela batzuetako komunak ere, hezetasunen arazoak konpontzeko eta irisgarritasunari, osasungarritasunari eta irristagaiztasunari buruzko araudia betetzeko. Hasierako aurrekontua 173.468,95 euro izan zen. Aurrekontu exekutatua 160.052,10 euro izan da, eta osorik da diruz lagungarria. Kontu-hartzailletza Delegatuak geldiarazi egin du dirulaguntzaren ordainketa.

Inbertsioa ordaintzeko, 2021eko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren barnean bazegoen 210001

21300 7609 231400 partida "(E) Lodosako zaharren egoitzaren udal eraikina hobetzeko jarduketak". Guztira 150.000 euroko gehieneko zenbatekoa zuen, eta onuraduna Lodosako Udala zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean Nafarroak izandako jarrerari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00399), jakin nahi baitu "pandemiaren kontrolari buruzko zer jarrera defendatu zuen Nafarroak joan den 2021eko abenduaren 22ko lehendakari-biltzarrean proposatu ziren neurrien aurrean". Hona horri buruz Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

Nafarroak, lurralde arteko kontseiluaren bilera horretan eta beste batzuetan, beti parte hartu izan du jarrera irekiarekin eta elkarlanerako prest, beti egin du apustu erabakiak ahalik eta gehien partekatu eta adostearen alde, horrela bermatuko baitziren erabaki horien eraginkortasuna eta herritarren harrera ona. Gainera, blokeoak gainditzen

ahalegintzeko jarrerarekin aritu izan da. Desberdintasunaren eta kobernamentuaren errespetutik abiatuta, gobernu honek beti lotu izan du eskumen-banaketatik beretik eta joko zelaiaren ezagutzatik sortzen den premisa hori entzute aktibo eta parte-hartze prozesu baten ondorengo akordio zabalen bilaketa horrekin. Jarrera horri eutsi izan dio gai guztietan eta are gehiago pandemiarenean, arazo globala baita eta ikuspuntu horretatik heldu behar baitzaio. Galdera hau sinatu duen Navarra Suma alderdiaren siglapekoak partaide dituzten beste gobernu batzuek agian ezin dute gauza bera esan, autonomia-erkidegoetako buruzagi batzuen jarrera publikoak ikusita, behintzat.

Hartutako jarreraren osagai teknikoek dagokienez, komeni da argitzea pandemiaren inguruko erabakien arkitektura. Lehendakarien Biltzarra dago maila gorenean, baina aurretik eta, zenbaitetan, ondoren, bilerak eta eztabaidak egiten dira Lurralde arteko Kontseiluaren mailan (kontseilariak parte hartzen dute), edo, maila bat beherago, organo bereko Osasun Publikoko Batzordean, bai eta ponentzia espezializatuagoetan ere. Prozesu horretan zehar, jarduleek kontuan hartzen dituzte osagai tekniko eta espezializatuak, ikuspegi integralak harturik, beren erantzukizun-eta ordezkartza-karguei dagokien moduan. Elementuen konbinazio hori dinamikoa da eta askotariko formak eta formatuak ditu, txosten, data edo egile jakin bati loturik ez daudenak. Horra hor aipatu bilerara eramandako jarrera eta ekarpena.

Nafarroak bere errealiterara egokitutako jarrera propioa izan du, badu, eta izanen du; hori zenbaitetan neurri gisa mamitzen da eta beste batzuetan ikuspuntu gisa.

Egokitasun arrazoiengatik, eta adostasun ahalik eta zabalaren bila lan eraikitzaile eta eraginkorra egiteari lehentasun politikoa emanda, lehentasunezko zatik jo zen, planteamendu komunean aurrera egin eta balizko blokeoak saihesteari begira, neurrien proposamen zehatza gordetzea alderdi anitzen arteko harremanetarako, Foru Komunitateak horrelako harremanak izaten baititu errealitate soziosanitario antzekoak dituzten autonomia-erkidego mugakideekin edo iparraldekoekin. Neurriak planteatzeari dagokionez, gogora ekarri behar da Lehendakarien Biltzarrak tarte zabal bat ireki zuela eta Nafarroak planteamendu bat partekatu zuela, bai; hemen eman zen horren berri: <https://www.navarra.es/eu/-/chivite-lehendakariak-jakinarazi-du-covid-ziurtagiria-leku-gehiagotara-zabalduko-dela-eta-mugikortasun-murrizketak-baztertu-ditu>

Euskal Autonomia Elkartearekin (EAE) eta beste autonomia-erkidego batzuekin hainbat mailatan (lehendakariak, kontseilariak eta Osasun Publikoko zuzendariak) izandako alderdi anitzeko harreman horien emaitza gisa, zenbait autonomia-erkidegoren artean aurrera atera ahal izan zen gutxienekoen gaineko akordio malgu bat, betebeharririk gabekoa, Eguberriei begira. Autonomia-erkidego bakoitzak bere lurraldera eraman eta bere erakunde judizialekin baliozkotu behar izan zuen; Nafarroako kasuan, Justizia Auzitegi Nagusiarekin. Neurri horietan ez zen musukoen erabilerari buruzko ezer sartu, Estatua-

ren eskumena izateagatik. Hala ere, hasieratik Nafarroak beti proposatu eta aldeztu zuen ekarpen sorta bat prebentzio-neurri horren erabilerari arrazionaltasunik eta erabilera-logikarik handiena emateko –inork ez du ezbaian jartzen haren eraginkortasuna, batez ere araudian zehazten diren egoera eta toki jakin batzuetan–.

Bai neurri horretaz bai beste batzuek, COVID pasaporteaz, esaterako, balorazio anibalenteak egin daitezke (babesa, balizko segurtasun falta etab.). Dena dela, aztertu behar da, modu orokorrean eta hainbat ikuspegitatik, ea alde onak gehiago diren alde txarrak baino. Hori dela-eta, gogora ekarri behar da COVID pasaportearen ezarpenak (pixkanaka ezarri da, eta bereziki barnealdeekin edo prebentzio neurriak betetzen zailak diren uneekin lotuta) bide eman duela hitzordurik gabeko txertaketaren lerroa berraktibatzeke. Abuztuan martxan jarri zenetik dagoeneko 12.000tik gora dira Nafarroan jarritako lehen dosiak, eta COVID pasaportea ezarri eta gero nabarmen handitu zen haren erabilera. Hala ere, pandemiari ikuspegi global batetik egin behar zaio aurre, eta ziurtagiri horrek badu deribatu bat mugikortasun seguruarekin lotuta dagoena autonomia-erkidegoen arteko eta nazioarteko ikuspuntutik. Hala ulertu dute herritarrek, Nafarroan 499.357 pertsonak 772.273 ziurtagiri deskargatu izanak erakusten duenez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, datu ofizialetan autodiagnostiko-probak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00400), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu “farmazietan farmazeutikoen gainbegiradapean eginiko autodiagnostiko-proben emaitza positiboak COVID-19ko kasu bezala jakinarazteari

buruz”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak eman beharreko informazioa:

Nafarroako Foru Komunitatea da lehen unetik farmazietako autodiagnostiko-proben emaitza positibo guztiak Ministerioari jakinarazten dizkion autonomia-erkidegoetako bat. Nafarroako Foru Komunitateak hainbat bidetatik jasotzen du positibo horien berri, eta Ministerioak bere informazio sistemetan eta web-orrian sartzten ditu. Nafarroako Gobernuak, halaber, datu horiek jasotzen ditu Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren zaintza epidemiologikoko txostenean, zeina, asterokoa denez, zehatzena baita positibo guztiak zenbatzeari begira, farmazietako positiboak barne. Eguneroko txostenek, aldiz, denbora-dekalajeak izan ditzakete.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboek jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren autodiagnostiko-proben emaitza positiboek jakinarazpenean Datuen Babesari buruzko Legea urratzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak

idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00401), informazio hau jaso nahi baitu: “Nafarroako Gobernuak konfirma al dezake ez dagoela datu-babeserako legearen urraketarik pertsona zehatzen izen-deituradun datu sanitarioak jakinarazteko posta elektronikoko zirkuitu bat erabiliz”. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak helarazi beharreko informazioa:

Omikron olatuaren intzidentzia handia ikusita, detekzio sistema guztiak bizkor egokitu behar izan ziren ustekabeko testuinguru batean. Sistema horiek hobetuz joan dira egoera baretu ahala. Egokitzapenetako bat izan da posta elektronikoko bat jartzea herritarrek mezuak bidaltzeko. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua da postaren jabea eta Osasunbideko langileek tratatzen

dute bertako informazioa, farmazietan erositako antigeno bidezko autotestekin detektatzen diren balizko positiboak jakinarazteko. Farmazia sarea-ekin ere aurrera egiten ari da informazioa igortzeko lankidetzaren sistemetan.

Ezin diegu erantzun zure bi galdera zehatzei, aipatu duzun kontsulta ez delako ohikoa eta aipatu duzun beste norabidean ere ez dugulako jarraitzerik jaso. Nolanahi ere, Osasunbideak, ustekabeko egoera hori gainditu ondoren, jarraitzen du pausoak ematen zirkuitu horiek hobetzeko, bai herritarrentzako irisgarritasunari begira, bai datuen babes maila igoz teknologikoki, kudeaketa eta

berrespen horietako asko bideratuz, jakina denez, osasun sistema publikoan bertan, web ofizialaren eta osasun karpeta bitartez. Halaxe jakinarazi zen hemen: <https://www.navarra.es/eu/-/osasun-departamentuak-bere-webgunean-farmazietako-autotestetako-positiboen-berri-emanen-du>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako batzorde delegatuaren bilereari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako funtsen kudeaketarako eraturako batzorde delegatuaren bilereari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du Europako funtsen kudeaketarako eraturako batzorde delegatuari buruz (10-21/PES-0402). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Next Generation EU funtsen kudeaketaren esparruan gaur egun ez dago inongo batzorde delegaturik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Europako funtsen kudeaketarako eraturako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilere buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako funtsen kudeaketarako eraturako konferentzia ekonomiko enpresarialaren bilere buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du Europako funtsen kudeaketarako eraturako konferentzia ekonomiko enpresarialari buruz (10-21/PES-0403). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Next Generation EU funtsen kudeaketaren esparruan gaur egun ez dago inongo konferentzia enpresarialik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari orain arte esleitutako 204 milioi euroen xehakapenari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Estatuak Europako funtsen banaketan Nafarroari esleitutako proiektuei buruz (10-21/PES-0404). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Orain arte esleitutako zenbatekoa ez da 204 milioi, baizik eta 213,6 milioi. Hona xehakapena, departamentuen arabera eta Suspertze Planeko osagaien arabera:

DEPARTAMENTUAK	Zenbatekoa
Lurralde Kohesiorako Departamentua	16.355.972
Kultura eta Kirol Departamentua	1.392.301
Eskubide Sozialetako Departamentua	29.133.866
Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentua	40.994.191
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	19.604.588
Hezkuntza Departamentua	33.814.791
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua	49.402.700
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	2.418.598
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	2.039.443
Osasun Departamentua	8.785.509
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	9.667.106
Guztira	213.609.066
OSAGAIK	Zenbatekoa
C1-Hiri eta metropoli inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana	18.909.327
C2-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berroneratzeko plana	46.402.700
C3-Nekazaritzako elikagaien eta arrantzen sistema eraldatzea ingurumen arloan eta digitalean	2.596.459
C4-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehengoratzea	11.784.553
C5-Itsasertzaren eta ur baliabideen babesak	3.153.155
C6-Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatua	661.883
C7-Energia berriztagarrien hedapena eta integrazioa	9.733.823
C8-Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunen sustapena eta malgutasunaren eta biltegitzearen hedapena	2.501.975
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	4.066.027
C12-Espainia 2030 Industria Politika	5.223.576
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	21.970.000
C15-Konektibitate digitala, zibersegurtasunaren sustapena eta 5Garen hedapena	2.839.000
C17-Zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren erreforma instituzionala egitea eta haren ahalmenak indartzea	5.418.485
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	8.785.509

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Europako funtsen kudeaketari begira egindako interes-adierazpenei buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak egindako interes-adierazpenei buruz (10-21/PES-0405). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Zure galderari hitzez hitz erantzuteko, ez dago aipatzeko proiekturik, ez baita Nafarroako Gobernuak interes-adierazpenak martxan jartzen dituena.

Laster Nafarroako Gobernuak Parlamentuan agerraldia egingen du Next Generation funtsen inguruan emandako azken pausoen berri emateko, eta hor hainbat gai jar litezke mahai gainean, esaterako, Nafarroako Gobernuak zer proiektu jo dituen egokitze Espainiako Gobernuak martxan jarritako interes-adierazpenetan sartzeko.

Dena dela, jakingarria balitz ere, Kultura eta Kirol Departamentuak Next Generation Bulegoari adierazi dio informazio bilketa antolatu duela, Espainiako Gobernuak ministerioen interes-adierazpenen moldeari eta formatuari jarraituz, Nex Generation funtsetatik dirulaguntza jaso dezaketen entitateek informazioa eman ahal izan dezaten laguntzen deialdiak hobeki zehazte aldera.

Hauek dira Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntza lerro horiek eta horietara aurkeztutako entitateak:

1) Espazio eszeniko eta musikalak modernizatzeko laguntzak:

– Fiteroko Udala. Calatrava zinema- eta antzerki-aretoa

– Barañaingo Udala. -Barañain auditoriuma

– Gayarre antzokia

– Etxarriko Udala. Kultur Etxeko auditoriuma

– Atarrabiako Udala. Kultur Etxeko auditoriuma

– Nafarroako Unibertsitatea. Nafarroako Unibertsitatea Museoko antzokia

– Tuterako Udala. Gaztambide antzokia

– Tafallako Udala. Kulturguneko auditoriuma

– Lodosako Udala. Kultur Etxeko auditoriuma

– Erriberriko Udala. Kultur Etxeko auditoriuma

– Faltzesko Udala. Gizarte Etxeko auditoriuma

– El Punto Gunea.

2) Zinema aretoentzako laguntzak

– Tuterako Multicines.

– Cintruenigoko Udala

– Altsasuko Udala

– Yelmo Films

– Golem

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Galdera, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, departamentuak migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko 2021ean zehar abian jarri dituen programei buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00406), idatziz erantzun dakion:

“1.- Departamentuak zenbat programa jarri ditu abian 2021ean zehar migratzaileen artean gaztelania edo euskara ikasteko?

2.- Zer herritan eta zer hizkuntzatan jarri ditu abian?

3.- Zenbat pertsonak parte hartu du horietako bakoitzean?

4.- Administrazioko zer entitate edo zerbitzu arduratu da horiek gauzatzeaz??

5.- Entitatea administrazioetik kanpokoa izan baldin bada, zer prozeduraren bidez aukeratu da?

6.- Zein izan da programen kostu osoa, guztiena batera nahiz banaka?”

Hona Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datuak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Enderlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olabe Ballarena andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik N-121-A errepidea, Enderlatsa eta Irun artean, hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-

baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotako konpromisoari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00407), honako argibide hauek jaso nahi baititu:

N-121-A errepeidea Endarlatsa eta Irun artean hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenean jasotzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio “ahalmena handitzeko egin beharreko jarduketak egitea, errepeide horretako trafikoaren bilakaeraren arabera, betiere Nafarroako Gobernuak errepeide horren kasuan daukan eskumenen esparruan egiten dituen jarduketekin koordinatuta”. Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso hori noiz artekoa da?

Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa: N-121-A errepeidea Endarlatsa eta Irun artean hobetzeko lanen ezaugarriak eta jabetza-, erabilera- eta titulartasun-baldintzak ezartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru

Aldundiaren arteko hitzarmen horren 8. klausulak, etorkizuneko jarduketei eta mantentze lanei buruzkoak, ezartzen duenez, “Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmen hau sinatzen den egunetik, konpromisoa hartzen du beti kontserbazio egoera onean edukitzeko N-121-A errepeideko Endarlatsa (Nafarroako probintzia-muga – Gipuzkoako probintzia-muga) eta Irun arteko zatia, bai egungoa bai zaharberritua (zaharberritze obrek ukituko ez duten egungo errepeideko aldeak barne).

Halaber Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du etorkizunean ahalmena handitzeko beharrezkoak izan litezkeen jarduketak egiteko, errepeide horretako trafikoaren bilakaeraren arabera. Hori guztia beti koordinatuko da Nafarroako Gobernuak errepeide berean bere eskumeneko eremuan egiten dituen jarduketekin”.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 160 irteera-zenbakiarekin erregistratua 2022ko urtarrilaren 10ean (10-22/PES-4), Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heldu diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren xedapen gehigarri bakarra betetzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria Nafarroako Parlamentuaren aurrean agertzekoa da otsailaren 9an, xedapen gehigarri

bakar horretan azaltzen diren gai guztien gaineko informazioa emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 4an.

Nafarroako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gobernu Irekiaren Atarian Europako funtsen kudeaketari buruz informatzeko gune bat irekitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Aráiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00005); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Gobernuak ba al du asmorik ekainaren 30eko 14/2021 Foru Legean ezartzen den sei hilabeteko epean irekitzeko Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian gune bat, informazio-sistema integral bat jasoko duena, eta zeinean argitaratuko den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta foru-sektore publiko instituzionalak Europako funtsen kudeaketari buruz duten informazio guztia?

Gobernuak nahiz Foru-sektore publikoak gaur arte hartutako zer erabaki edo administrazio-egin-tza jaso behar zituzkeen gune horretan, baldin eta gune hori Gobernu Irekiaren Atarian irekita egon izan balitz?

Nafarroako Gobernua lanean ari da, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lana-

ren Zuzendaritza Nagusia, Next-Generation Bulegoa eta Lehendakariatzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza direla medio, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

Kontuan izan behar da Europako Next-Generation funtsen exekuzioari buruzko informazioa kontrolatzeko eta kudeatzeko tresna batzuk prestatzen ari garela eta horiek bat etorri behar dutela Estatuko Administrazio Orokorrek prestatuko duen tresnarekin, zeina Europako Batasunari aurkeztu behar baitio berak ere.

Ildo horretan, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez taxutu zen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema.

Bestalde, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren bidez ezarri zen informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, informazio hori erabiliko baita jarraipena egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugari eta helburuen betetze-mailari eta aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioari.

Estatuko Administrazio Orokorra, arau horietan ezarritakoa betez, informazioa emateko sistemaren diseinua amaitzen ari da.

Aipatu estatu-araudia aplikatuz, Nafarroako Gobernuak, urriaren 13ko bilkuran, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaz (SEM) finantzatutako proiektuen kudeaketarako eta jarraipenerako arauak onetsi zituen. Arau horietan jasorik dago

informazio sistema bat sortu behar dela, zeinak, Estatuko Administrazioari informazioa emateko betebeharra betetzeko bidea izateaz gain, SEMek finantzatutako jarduketa guztien gaineko informazioa emanen baitu. Tresna horrek garapen praktikoak izan dezan, Estatuko Administrazio Orokorra behin betiko taxutu behar du informazio sistema, zeinak jasoko baititu proiektuen bilakaera eta xede horretarako esleitutako funtsen benetako aplikazioa, maila guztietan –Europar Batasuneko erakundearen aurrean ziurtatzeko indarra ere izanen du–. Irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak aipagai duen Estatuko informazio sistemaren egitura erabat argitu arte eta Estatuko Administrazioak jarraipena zein proiektuari egin behar zaien zehaztu arte, noski, ezer gutxirako balioko luke egiten ari diren jarduketan berri argitaratzeko ahallegin orok.

Hori egin bezain laster, gardentasunaren eta kontu-ematearen printzipioak eta arestian aipatutako 5/2018 Foru Legea betez, gune bat jarriko da Nafarroako Gobernuaren Atarian eta handik herri-tarrek informazio eta agiri guztiak eskuratzen ahalko dituzte.

Hala, bada, eraginkortasunaren, efizientziaren eta zehaztasunaren printzipioek eskatzen dute pixka bat gehiago itzarotea gune hori sortzeko.

Zure bigarren galderari dagokionez, aurreko erantzunean azaldu den bezala eta bertan adierazitako arrazoiak tarteko, oraindik ez da sortu gune hori.

Hala ere, gardentasunaren ikuspuntutik, aintzat hartu behar dira bi datu hauek:

1. Nafarroako Gobernuaren erabaki guztiak Parlamentura igortzen dira eta bilkura bakoitzeko gai zerrenda Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen da.

Dirulaguntzak, berriz, dirulaguntzen datu-base nazionalen argitaratzen dira, eta deialdiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean, laguntzak norgehiagokaren edo banakako ebaluazioaren bidez banatzen direnean. Halaber navarra.es webguneko prozedura eta zerbitzuen katalogoko fitxetan argitaratzen da laguntzen deialdi, emate eta ordaintzei buruzko informazio osoa. Azkenik, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen da gardentasun araudiak laguntzei dagokienez agintzen duen publizitate aktiboko informazioa.

Kontratazio publikoaren arloan ere, kontratu publikoen lizitazio eta adjudikazioekin zerikusia duten informazio guztiak Kontratazioaren Atarian argitaratzen dira.

2. Gaur egun, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zaion 200 milioitik gorako diru kopurutik milioi bat pasatxo baino ez da exekutatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 1ean

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00010), honako hau jakin nahi baitu:

Zenbat egiten dute, guztira eta urtez urte xehakaturatuta, Nafarroan ibilgailu zaharra baja ematearen truke ibilgailu berria erosita ibilgailuen parkea berritze aldera 2006tik 2013ra bitarte bideratu diren laguntza publikoek?

Hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horretaz ematen dion informazioa: egindako kontsultaren arabera, 2006., 2011., 2012. eta 2013. urteetan ez zen izan horrelako dirulaguntzarik.

Adierazitako denbora-bitarteko gainerako urte-etarako, hau da eskatutako informazioa:

Urtea	Laguntza mota	Aurrekontu-partidak	Zenbatekoa
2007	Prever Plana, laguntza fiskalak, zuzeneko dirulaguntzarik ez	830001-81120-7709-422202	1.058.885,00
2008	Prever Plana, laguntza fiskalak, zuzeneko dirulaguntzarik ez	830001-81120-7709-422202	130.458,00
2009	Renove Plana 2009, zuzeneko dirulaguntza	810003-81140-7800-(425205 eta 425206)	7.131.600,00
2010	Renove Plana 2010, zuzeneko dirulaguntza	810003-81140-7800-425206	4.153.200,00

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

38/2022 Ebazpena, otsailaren 22koa, Kontuen Ganberako lehendakariak emana, erakundearen egoitza elektronikoa eta erregistro elektronikoa arautzen dituen.

Kontuen Ganberako lehendakariak 2015eko urriaren 5ean emandako ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa sortu eta arautzea onetsi zen. Egoitzaren erreferentziako helbide elektronikoaren aldaketa eta ordutik hona gertatutako aldaketak direla eta, erakundearen egoitza elektronikoaren erregulazioa ere aldatu beharra dago, eta horregatik ematen da arau hau.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (aurrerantzean, 40/2015 Legea) sektore publikoaren jardunbide elektronikoari buruzko arauak jasotzen ditu. Lege horren hogeita bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Kontuen Auzitegiaren pareko diren erakunde autonomikoetako organo administratiboen jarduketa administratiboa haien araudi espezifikoan ezarritakoak zuzenduko du, lege horrekin bat jarduketa administratiboa gidatzen duten printzipioen barruan.

Kontuen Ganberak ez duenez araudi espezifikorik administrazio elektronikoaren arloan, beharrezkoa da 40/2015 Legean eta harekin lotutako arauetan ezarritakoa erreferentzia esparrutaz hartzea. 40/2015 Legearen 38.1 artikulua honela definitzen du egoitza elektronikoa: "Egoitza elektronikoa helbide elektroniko bat da, herritarrek telekomunikazio-sareen bitartez baliabide dezaketena. Haren titulartasuna administrazio publiko bati dagokio, edo organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate bati edo batzuei, bere eskumena egikaritzan"; artikulua horren 3. apartatuan, berriz, honakoa ezartzen du: "Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko ditu egoitza elektronikoak eratzeko baldintzak eta tresnak, printzipio hauei jarraituz: gardentasuna, publikotasuna, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, baliagarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna eta elkarreragigarritasuna. Nolanahi ere, egoitzaren organo titularraren identifikazioa bermatu beharko da, bai

eta iradokizunak eta kexak adierazteko baliabideak ere".

Bestalde, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezartzen duenez, "administrazio bakoitzak erregistro elektronikorokor bat izanen du, hartan idazpena egiteko edozein dokumentu aurkezten edo jasotzen dela ere administrazio horri lotutako edo haren mende edozein administrazio-organu, organismo publiko edo entitatetan"; artikulua horretan, halaber, erregistro horien ezaugarriak arautzen ditu, eta, 7. apartatuan jasotzen denez, "dokumentuak elektronikoki aurkezteko laguntza ematen den bulegoen zerrenda bat publiko egin behar dute administrazio publikoek, eta eguneraturik mantendu".

Horrenbestez, lehen aipatutakoa kontuan hartuta eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordeari jakinarazi ondoren, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuz, Kontuen Ganbera arautzen duen Foru Legearen 6.2 eta 15.2 d) artikuluetan xedatutakoarekin bat, lehendakari honi erakundearen antolaketaren eta barne gobernuaren arloko eskumena aitortzen baitiote,

EBAZTEN DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa.

1. Egoitza elektronikoa telekomunikazio sareen bidez herritarren eskura dagoen helbide elektronikoa da, Kontuen Ganberaren titulartasuneko. Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa bat eta bakarra da erakundeko organo eta unitate guztientzat.

2. Egoitza elektronikoan sartzea.

Egoitzaren erreferentziako helbide elektronikoa hau da: <https://camaradecomptos.sedelectronica.es>; bertara zuzenean sartzen ahalko da, bai

eta erakundearen web-orriaren bidez ere, helbide honetan: <https://camaradecomptos.navarra.es/eu>

3. Egoitza elektronikoaren titulartasuna eta haren ardura duten organoak.

Egoitza elektronikoaren titularra Nafarroako Kontuen Ganbera da.

Egoitzaren eduki komunak kudeatzeko eta erakundeko organo eta unitateekin koordinatzeko lana Idazkaritza Nagusiari dagokio.

Egoitzaren kudeaketa teknologikoa Kontuen Ganberako Idazkaritza Nagusiaren eskumena da, eta erakundeko Informatika Sistemetak goi mailako teknikariaren bidez beteko du.

4. Egoitza elektronikoaren edukia eta ezaugarriak.

Egoitza elektronikoaren bidez eginen dira Administrazio Publikoaren edo herritarren autentifikazioa bitarteko elektronikoaren bidez eskatzen duten jarduketa, prozedura eta zerbitzu guztiak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoak gutxienez ere eduki hau izanen du:

a) Egoitzaren, haren organo titularraren eta kudeaketaren ardura duen organoaren identifikazioa.

b) Egoitza elektronikoaren bidez eskura jartzen diren edukiei buruzko informazioa.

c) Egoitza elektronikoan sartzeko eta hura erabiltzeko baldintzak.

d) Erabiltzaileak egoitza elektronikoa modu egokian erabiltzeko behar den informazioa, egoitzaren mapa barne, nabigaziorako egitura zehaztuta.

e) Sinadura elektronikorako eta ziurtagiriak egiaztatzeko onartzen diren sistemen zerrenda.

f) Eskura dauden tramite eta zerbitzuen katalogoa.

g) Kexa eta iradokizunen postontzi orokorra.

h) Egoitzaren bidez gauzatzen diren informazio eta komunikazioen konfidentzialtasun, osotasun eta eskuragarritasun baldintzak betetzeari buruzko txostena.

i) Datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa.

j) Kontuen Ganberaren Erregistro Elektronikoa eta haren araudia.

k) Data eta ordu ofiziala eta baliogabe deklaratuakotako egunak.

l) Kontuen Ganberaren iritziz sartu beharreko beste edozein.

Egoitza elektronikoan sartutako informazioak eta zerbitzuek, 40/2015 Legeak ezarri bezala, irisgarritasun eta erabilgarritasun printzipioak beteko dituzte, gai horri buruz ezarritako arauekin bat, bai eta estandar irekiak eta herritarrentzat erabilera orokorra duten beste batzuk ere.

Egoitza elektronikoan argitaratzen diren edukiek segurtasun eta elkarreragingarritasun irizpideak beteko dituzte, hain zuzen ere Segurtasunaren Eskema Nazionalean (urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean (urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren bidez onetsia) ezarritakoak.

Bigarrena. Nafarroako Kontuen Ganberaren erregistro elektronikoa.

1. Erregistro elektronikoa.

Kontuen Ganberaren erregistro elektronikoan, eskaerak, komunikazioak eta sinadura elektronikoarekin jaso eta bidaltzen diren gainerako agiriak jaso eta igortzeari dagozkien idazpenak eginen dira.

Ebazpen honetan araututa ez dagoen guztian, erregistro elektronikoaren arloari dagokionez 39/2015 Legean eta erregelamenduz garatutakoan xedatutakoak aginduko du.

2. Erregistro elektronikoaren helbidea.

Interesdunak erregistro elektronikoan sartzeko ahalko dira Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoaren helbidearen bidez, bai eta Interneteko atariaren bidez ere: <https://camaradecomptos.navarra.es/eu>.

3. Ardurak eta organo eskudunak.

Erregistro elektronikoa kudeatzeko lana Nafarroako Kontuen Ganberako idazkaritza nagusiari dagokio, eta hark beteko du, halaber, erregistro horren kudeaketa teknologikoaren eskumena, erakundeko informatika zerbitzuen bitartez.

4. Egutegia eta epeen zenbaketa.

Erregistro elektronikoaren bidez eskaerak, komunikazioak eta gainerako agiriak aurkezten ahalko dira urteko egun guztietan, hogeita lau orduetan, mantentze-lan tekniko edo operatiboak direla eta, justifikatutako arrazoiengatik egin beharreko etenaldietan izan ezik; etenaldi horiek nahitaezko iraupena baizik ez dute izanen, eta haien berri emanen da erregistroan bertan eta egoitza elektronikoan.

Epeen kontaketa 39/2015 Legearen 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingen da. Ondorio horietarako, erregistroan Espainiako data eta ordu ofizialak erabiliko dira, penintsulari, Ceutari, Melillari eta Balear Irlei dagozkiena. Horrela aplikatuko zaie, halaber, erregistro elektronikoan ordutegi ofizial hori ez beste bat duen edozein lurraldetatik sartzen direnei.

5. Nortasuna egiaztatzea.

Interesdunek eskaerak, idatziak eta komunikazioak aurkezten ahalko dituzte erregistro elektronikoan 39/2015 Legearen 3. artikuluan eta hurrengoetan zehazten den moduan.

Erregistro elektronikoan agiriak aurkezten dituztenen identifikazioa eta aurkeztutako datuen eta agirien sinadura egiteko, Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoan onartzen edo erabiltzen diren sinadura elektronikorako sistemen zerrendan ageri den edozein baliatzen ahalko da.

6. Onartzen diren agiriak.

Erregistro elektronikoa gaituta dago Nafarroako Kontuen Ganberaren eskumenekoak diren jarduketara eta prozeduren gaineko eskaerak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko eta, kasua bada, igortzeko. Erakundearen egoitza elektronikoan eman behar harko da horien berri. Egoitza horretan honakoak agertuko dira: erregistroan aurkezten ahal diren agirien zerrenda eguneratua; agiriak, idatziak eta komunikazioak jasotzea eta, kasua bada, igortzea benetan gauzatzeko euskarri, bitarteko eta aplikazio informatiko bateragarrien zerrenda; eta erabiltzen ahal diren sistema eragileak eta nabigatzaileak, baita formatu elektroniko onargarria ere.

Erregistro elektronikoa Erregistroen Interkonexiorako Sisteman sartuta egonen da, eta aukera emanen du bertan sartutako entitateen eskaerak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko eta, kasua bada, haiei igortzeko ere.

Erregistro elektronikoak atzera botatzen ahalko ditu ezaugarri hauetakoren bat betetzen duten agiri elektronikoak:

a) Kode gaiztoa dutenak edo sistemaren osotasuna edo segurtasuna arriskuan jar lezakeen gailuren bat dutenak.

b) Prozedura zehatz batean ezarritako eredu espezifikoak erabiltzen ez direnean.

c) Agiri normalizatuen erabilera eskatzen duten prozeduretan, agiria onesteko ebazpenean nahi-taezkoak diren eremuak betetzen ez direnean, edo haien tratamendua galarazten duten

inkongruentziak edo omisioak dituenen, horrek ukatu gabe agiria onartzeko aukera eta ondoren zuzentzeko eskatzea.

d) Erregistroen Interkonexiorako Sisteman sartuta ez dagoen entitate bati zuzenduta egotea.

7. Jaso izanaren agiria.

Erregistro elektronikoak gordekin bat emanen die eskaera, idatzi edo komunikazio bat aurkezten duten interesdunei, aurkezpenaren egiaztagirigisakoa, eta bertan adierazita egonen dira igorlearen identifikazio datuak, aurkezpenaren eguna eta ordua eta transmisioaren identifikazio-gako bat. Antzeko gordekin bat emanen da erregistro elektronikotik beste pertsona fisiko edo juridiko baten-tzako edozein agiri bidaltzen denean.

8. Elkarreragingarritasuna, segurtasuna, irisgarritasuna eta datuen babesa.

Erregistro elektronikoak bitarteko egokiak izanen ditu, antolaketakoak nahiz teknikoak, erregistro elektronikoaren elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatzeko, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan eta Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Erregistro elektronikoaren diseinuak beteko ditu azaroaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretuan ezarritako irisgarritasun baldintzak. Errege dekretu horren bidez onetsi zen desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta masa-hedabideekin lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko oinarriko baldintzei buruzko erregelamendua.

Erregistro elektronikoaren bidez eskuratzen diren datu pertsonalen tratamendua bat etorriko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta aplikagarria den gainerako araudian xedatutakoarekin.

Hirugarrena. Ebazpen hau igortzea Nafarroako Kontuen Ganberako informatika sistemetako goi mailako teknikariari, idazkari nagusiari, administratzaileari eta gainerako langileei. Era berean, ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Kontuen Ganberaren web-orrian argitara dadila agintzen da.

Iruñean, 2022ko otsailaren 22an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

